

# → AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 13. atala

DATA: 2024/09/20

## GUREAN

### AISIALDIAN ERE, ZUEN ONDOAN!

ESKOLAZ KANPOKO KIROL EKINTZEKIN hasi gara aste honetan. Pixkanaka-pixkanaka erritmoa hartzen ibili gara. Kirol ezberdinak probesteko aukera paregabea da. Eman egurra!

#### BESTE EKINTZEN EGUTEGIA:

**Ingelesa:** irailaren 16tik aurrera.

**Yoga:** irailaren 20an.

**Musika:** irailaren 23an.

**Euskal Dantza:** HH5 eta LH1eko ikasleak irailaren 16an, LH 2-3- 4-5-6koak irailaren 17an eta DBHko ikasleak, aldiz, irailaren 20an.

**Antzerkia:** LH 2-3-4-5ekoak urriaren 3an hasiko dira eta LH 1 eta LH 6koak, aldiz, urriaren 4an.

## GURE INGURUAN



### 2024KO DONOSTIAKO ZINEMALDIA

NOIZ: IRAILAK 20TIK-28RA



Donostiako Zinemaldia, 2024ko irailaren 20tik 28ra ospatuko dena, Europako ekitaldi zinematografiko garrantzitsuenetako bat da. Festibal ospetsu honek zinemagileak, aktoreak eta zinema maite dutenak biltzen ditu giro bizian, mundu osoko filmak, estreinaldiak eta ekintza paraleloak eskaintzen ditu.

### ATLANTIKALDIA KULTUR TOPAGUNEA ETA MUSIKA JAIALDIA

NON: ERRENTERIAN  
NOIZ: IRAILAK 19TIK-22RA

Atlantikaldia, kultur topagune eta musika jaialdia 2014. urtean sortu zen hiru ardatz nagusiren gainean: Errenteriarren itsas memoria berreskuratzea, herria mundura begira jartzea eta mundua herrira begira jartzea. Aurtan, 'Artxipelagoa' lelopean, Errenteria kultur anitzeko plaza bihurtuko da irailaren 19tik 22ra bitartean. Programazioko kultura- eta musika-ekintzak artxipelagoko uharteen antzekoak izango dira: anitzak eta bereziak, baina elkarri lotuta eta elkarrekintzan. Jaialdiak kulturen arteko elkarriketa eta sorkuntza artistikoa sustatzen ditu, uharte bakoitzak bere nortasunari eutsiz osotasun harmoniatsua osatzen duen bezala.

